

Euskaltelek bere ibilbide-orriaren mugarri nagusiak osatu ditu, eta eragiketa- eta finantza-magnitude nagusiak berriz haztea lortu du 2019aren amaieran

Euskaltel Taldeak 62 milioi euroko mozkinarekin itxi du 2019a, bezero gehiagorekin eta errentagarritasun handiagoarekin

- Ibilbide-orriaren eraginkortasun-neurri nagusiak martxan daude, eta jada emaitza garrantzitsuak ematen ari zaizkio konpainiari.
- Bezero-hazkundera izan zuen konpainiak bosgarren hiruhereneko jarraian, eta sare finkoaren 8.757 erabiltzaile berriekin itxi zuen 2019a. Horretaz gain, ebitdan urtetik urterako hazkunde positiboa izan zuen.
- Taldearen balio handiko bezeroen oinarriak hazten jarraitzen du. Halaber, iaz baino 81.172 produktu gehiago kontratatu dira etxeko segmentuan; 2019aren bukaeran, 2,85 milioi produktu zeuden kontratatuak.
- Taldeak sendotu egin du telefonia mugikorraren segmentuan duen lidergoa, 46.900 linea berri gehitu baititu.
- Banda zabaleko produktuetan, 17.700 linea berri gehiago dira.
- Telebistan, 21.669 erabiltzaile berri. Nabarmenezkoa da Taldearen bezeroen ia % 80k kontratatua duela TBa.
- Balio erantsi handiko bezeroen kopuruak (3-4 produktu kontratatuak dituztenak) handitzen segitzen du, sektoreko mailarik gorenetan. Euskaltel Taldearen bezero bakoitzak 3,69 produktu kontratatu zituen batez beste 2019an.
- Enpresa-segmentuan, joera positiboari eusten dio, eta bezeroak nabarmen gehitzea lortu du ETE-etan eta kontu handietan.

- Taldeak aurreko hiruhilekoetan hasitako joera positiboarekin jarraitu du, eta diru-sarreretan % 0,7ko hazkunde positiboa izan du 2019ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko epe berarekin alderatuta.
- Ebitda 344,5 milioi izan zen ekitaldian, aurreko urtean baino % 2,4 gehiago. Hazkunde nabarmena izan zuen urteko azken hiruhilekoan, aurrekoetan lortutako joera positiboari jarraituz.
- Ebitdaren marjina diru-sarreraren % 50,3raino igo da —aurreko urteko % 48,6koaren aldean oinarritzko 300 puntu baino gehiago hazi da—, eta erreferentzia da Europan sektoreko konpainien artean.
- Errentagarritasunaren hazkunde horretatik diru-hornidura handiagoa lortu du Euskaltelek. Kutzako fluxu operatiboa 190,3 milioi eurokoa izan da; % 4 baino gehiago hazi da, aurreko ekitaldikoa 182,9 milioikoa izan baitzen.
- Handizkako akordio nazionalak berrituta eta Virgin marka erabiltzeko hitzarmena sinatuta, konpainiak prest ditu Espainia osora hedatzeko behar dituen aktibo guztiak.
- 2020ko lehen sei hilekoan, Taldea 18 milioi etxebizitzatan baino gehiagotan sartu ahal izango da Espainian, merkatu naturalak barne, bere sarearen bidez edo handizkako akordioen bidez.
- Martxoaren 10ean, Espainia osora hedatzeko negozio-planaren berri emango du Taldeak.

Bilbon, 2020ko otsailaren 25ean. Euskaltel Taldeak —Euskaltel, R eta Telecable markek osatzen dute— gaur arratsaldean jakinarazi ditu 2019ko laugarren hiruhilekoari dagozkion datuak. Datu horiek berresten dute emaitza onak lortu direla, bai bezero-oinarriaren hazkundera, bai errentagarritasuneari, konpainiaren bide-orri estrategian zehaztutako kudeaketa-ekimen eraginkorrak abian jartzearen ondorioz.

Taldeak bete ditu 2019ko laugarren hiruhilekoarako finantza-helburuak. Ezarritako eragiketa- eta finantza-hobekuntzei esker, 2019a ixtean bere eragiketa- eta finantza-magnitude nagusiak berriro haztea lortu du konpainiak.

2019ko ekitaldiaren itxieran, merkatu masiboan sare finkoko 669.671 bezero zituen konpainiak, 8.757 bezero berri irabazita. Bosgarren hiruhilekoz jarraian izan zuen bezero-gehikuntza, aurreko bi urteetan izandako erabiltzaile-galerarekin alderatuta (2018an 3.500 bezero galdu zituen). Azken hiru ekitaldietatik, 2019koan bakarrik hazi da lau hiruhilekoetan zerbitzu finkoen bezeroen oinarria.

Euskaltel Taldearen bezeroek, 2019an, erabiltzaile bakoitzeko 3,69 produktu kontratatu dituzte, batez beste, eta operadore konbergentearen posizioa finkatu dute, balio

handiko telefoniako, banda zabal finko eta mugikorreko eta ordainpeko telebistako produktuen paketeekin.

Enpresa-segmentuari dagokionez, joera positiboari eutsi dio, eta bezero-kopurua nabarmen hazi da, 15.263 ETE eta kontu handitara iritsi arte. Merkatuko *player* nagusiekiko aliantzetan oinarritutako estrategia komertzial bateratuaren emaitza da hori, bai eta FTTH sarearen bidez produktuak eskaintzearen ondorio ere.

Ebitda eta kutxa-hornidura hazi egin dira

Ustiapen-irabazi gordina, ebitda, 344,5 milioi izan zen ekitaldian, aurreko urtean baino % 2,4 gehiago. Hazkunde nabarmena izan zuen urteko azken hiruhilekoan (92,2 milioi, % 10,2 hazita hirugarren hiruhileko 68,8etatik), azken hiruhilekoetan lortutako joera positiboari jarraituz.

Era berean, ebitdaren marjina diru-sarreraren % 50,3raino igo da —aurreko urteko % 48,6koaren aldean, oinarritzko 300 puntu baino gehiago hazi da—, eta erreferentziazko posizioari eusten dio Europan sektoreko konpainien artean. Ratio hori kostuen kudeaketa eraginkorraren emaitza da, konpainiaren ibilbide-orrian zehazten den bezala.

Errentagarritasunaren hazkunde horretatik diru-irabazi handiagoa lortu du Euskaltelek. Hala, kutxa-fluxu operatiboa 190,3 milioi eurokoa izan da; aurreko ekitaldian, berriz, 182,9 milioikoa (% 4 hazi da), eta diru-sarreraren marjina % 27,8koa izan da; 2018an, berriz, % 26,4koa (oinarritzko 130 puntu hazi da).

Kutxako fluxuaren hornidura sendoari esker, 2019an sortutako diruak aukera eman du palanka-efektuaren ratioak hobetzen jarraitzeko, zorra ebitda halako 4,2 izan arte, 2019an zorra 45,8 milioi euro murriztu ondoren. Ekitaldi horretan, konpainiak 55,3 milioi euro banatu zituen akziodunen arteko dibidendu gisa, eta horrek % 4ko errentagarritasuna adierazten du, gutxi gorabehera.

Balio handiko bezero gehiago eta kontratatutako produktu gehiago

Taldearen balio handiko bezeroen oinarriak hazten jarraitzen du. Halaber, iaz baino 81.172 produktu gehiago kontratatu dira etxeko segmentuan; 2019aren bukaeran, 2,85 milioi produktu zeuden kontratatuak.

Produktu-motari dagokionez, Taldeak sendotu egin du telefonia mugikorraren segmentuan duen lidergoa, 46.900 linea berri gehiago lortu baititu; banda zabaleko produktuen artean, berriz, 17.700 linea berri gehiago ditu, eta telebistak 21.669 erabiltzaile berri ditu, batez ere 4K deskodetzaileari esker eta OTT plataformak eta zerbitzuak urrutiko agintean integratzeari esker, erabiltzaileek gero eta gehiago eskatzen baitituzte zerbitzuok. Nabarmentzekoa da Taldearen bezeroen ia % 80k kontratatua duela TBa.

Joera positiboa diru-sarreretan

Bezera-hazkundeari eta ARPU indizearen egonkortasunari esker, konpainiak aurreko hiruhilekoetan hasitako joera positiboari eutsi dio, eta diru-sarreraren % 0,7ko hazkunde positiboa lortu du 2019ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko garai berarekin alderatuta. Diru-sarreraren hazkunde positibo horrek aldatu egin du azken lau hiruhilekoetako joera negatiboa, eta berresten du, halaber, behar bezala ezarri dela 2019ko ekainean aurkeztutako ibilbide-orria. Bi ziren orri horren helburu nagusiak: negozio tradizionalak eraginkorrago egiten laguntzeko tresnak eskaintzea eta konpainiaren negozioa estatu osora zabaltzeko behar ziren prestaketa-lanak egitea.

Horri dagokionez, Euskaltel Taldeak eraginkortasun-neurri nagusiak ezarrita edo osatuta amaitu du 2019a; hauek dira, besteak beste, hartutako neurriak:

- Taldearen kudeaketako hiru eskualde-egiturak berregituratzea eta egiturek konpainiaren negozio guztia kudeatuko duen talde exekutibo bakar batean integratzea.
- Konpainiaren salmenta-estrategia aldatzea, kanal komertzial berriak sartzeko ahalegina barne; horri esker, nabarmen handitu dira salmentak eta asko gutxitu da eragiketa bakoitzeko kostu bateratua.
- Plataforma tekniko bakar bat sortzea, konpainiaren hiru azpiegitura teknikoak plataforma eraginkor bakar batean integratuko dituen eta konpainiaren hedapen nazionala bultzatuko duena.

Virgin markarekin estatu osora hedatzeko prozesua

Neurri horiei esker, nabarmen murriztu dira eragiketa-gastuak, eta handitu egin da enpresaren marjina operatiboa. Orobat lortu da ibilbide-orriko beste helburu nagusia, estatu osora zabaltzeko prozesuaren funtsezko pausoak eman baitira. Hauek dira, besteak beste, lorpen nagusiak:

- Konpainiak Orange eta Telefónica handizkariekin zituen hitzarmenak berritzea eta hobetzea; nabarmen hobetu dira hitzarmenon kondizioak, eta, horri esker, konpainiak oso baldintza onetan eskainiko ditu zerbitzuak estatu osoan.
- Euskaltel Taldea prestatua dago oraindik lan-eremu ez duen Espainiako merkatuaren % 85ean aritzeko. Konpainiak aurreikusitakoaren arabera, 2020ko lehenengo sei hilekoan Espainiako 18 milioi etxetara heltzeko aukera izango du (bere merkatu naturalak barne harturik), bai bere sarearen bidez, bai Orange eta Telefónica handizkariekin egindako hitzarmenen bidez.
- Virgin Taldearekin sinatutako marka-lizentziari buruzko akordioa, zeinari esker konpainiak Virgin marka erabiliko baitu Espainian hedatzeko. Virgin marka, duen ospeari eta dituen ezaugarri paregabeiei esker, konpainiaren hedapen-planak bizkortzeko aktibo funtsezkoa izango da, zalantzarik gabe.

Bi mugarri horiek beteta eta barne-prestaketa ia amaituta dagoelarik, konpainiak datozen asteetan emango ditu Espainia osora zabaltzeko aurreneko pausoak. 2020ko martxoaren 10ean, negozio-planaren berri emango da, bai eta Espainia osora zabaltzeko eragiketa- eta finantza-helburuen berri ere.

Dibidendu-banaketa

Bestalde, Euskaltel Taldeak 25 milioi euro banatu zizkien akziodunei otsailaren 5ean, konturako dibidenduaren kontzeptuan: akzio bakoitzeko, 0,14 euro gordin. Konturako dibidenduen banaketa 2019ko urriaren 29an erabaki zuen Euskaltel Taldearen Administrazio Kontseiluak.

Dibidenduak banatzen diren laugarren urtea da, jarraian, 2015ean konpainia Bursara atara zenetik. 2020an egitekoa den Akziodunen Batzar Orokorrean erabakiko da, Administrazio Kontseiluak proposatuta, zenbatekoa izango den 2019ko konturako azken dibidendua.

Finantza-merkatuek aitortu dute konpainiaren bilakaera positiboa, eta Euskaltelen akzioaren prezioa % 30 baino gehiago igo zen 2019an: ia hiru aldiz gehiago Espainiako merkatuko erreferentzia-indizea baino. Ondorioz, 2019ko abenduan, Ibex Medium Cap-en onartu zuten Euskaltel —Ibex 35etik kanpoko Espainiako balore-merkatuko 20 enpresa adierazgarrienak biltzen ditu Ibex Medium Cap-ek—.

Euskaltel Taldearen jakinarazpena
komunikazioa@euskaltel.com